

BALIO PROPOSAMENA: JOLAS BILDUMA

Gaur egun, gero eta gehiago ari dira galtzen jolas tradizionalak (Alberdi, 2020), teknologiaren erabilera handitu delako edo familiak ez direlako jolas horiek ezagutzera iristen. Guk arazo horri konponbidea ematen diogu, jolas tradizionalak berreskuratu, mantendu eta sustatzeko lanean.



Baliabide ekonomiko nahikorik ez duten familia askok ez dute aukerarik jostailuak erosteko, eta horrek, haurraren garapenean eragina izan dezake. Guk familiei dohako jolasak eskaintzen dizkiegu, aukera berdintasuna bermatzeko eta ume guztiek jolas osasuntsu eta sortzaileak izateko.

Behar bereziak dituzten haurrentzat egokitu eta pentsatutako jolasak eskaintzen ditugu, haur horiek ere jolastu eta garatzeko aukera izan dezaten, beren erritmo eta beharren arabera.

Gure proiektuaren oinarrietako bat euskal jolasak erabiltzea da. Horien bidez, euskararen presentzia, erabilera eta transmisioa indartzen baitugu. Honela, jolasaren bidez, gure kulturaren parte diren ohiturak eta hizkuntza bizirik mantentzen laguntzen dugu, eta desagertzea saihesteko ekarpen praktikoa egiten dugu.

Guraso berri diren bikote askok ez dakite nondik hasi, zein jolas diren egokiak edo nola erabili. Gauza bera gertatzen zaie kanpotik etorritako familiei, euskal jolasak ezagutzen ez dituztenei edo euren haurrek komunitatearekin konektatzea nahi dutenei. Horregatik, gure proiektua laguntza, gidaritza eta orientazioa eskaintzera bideratzen da, familiek jolas tradizionalak modu eraginkorrean erabiltzeko eta euren egunerokoan txertatzeko.

Gure zerbitzua bereizgarri bihurtzen duena da familia atzeritarrek edo euskal jolasak ezagutzen ez dituzten pertsonak aukera dutela jolas hauek erabat dohainik ikasi eta esperimintatzeko. Honek, aukera ematen die kulturarekin konektatzeko, haurrei ingurunea hobeto ulertzen laguntzeko eta komunitate berrian bertako ohiturak ezagutzuz integratzeko. Behar bereziak dituzten familiek bilera pertsonalizatuak, orientazio saioak eta laguntza ordaindua ere jaso dezakete. Zerbitzu horiek profesionalizatuak dira, eta familia bakoitzaren egoera zehatzera egokitzen ditugu, haien erritmo, zalantza eta premiei egokituak laguntza eskainiz. Bestetik, guraso berrien kasuan, gure eginkizuna haien bidelagun izatea da: lehen aldiz haur baten zaintzan eta jolaserako prozesuan sartzen direnean, askotan galderak eta ziurgabetasunak sortzen dira.

Gainera, guri ordaindutako zerbitzuarekin aste bateko probaldia eskuratzeko aukera edukiko dute bezeroek. Familiek gure webgunean dauden jolas tradizionalen material guztiak probatu ahal izateko, eta horrela, ez dute zertan jostailu bat erosi probatu aurretik gustuko izango duten ala ez jakin gabe. Probaldi honek, erosketak seguruago, arrazionalago eta beharretara egokituago bihurtzen ditu, eta familiek aukera dute benetan interesatzen zaien materiala soilik eskuratzeko.

Horri guztiari esker, familien inbertsioa ez da jostailu soil baten erosketara mugatzen; laguntza, ezagutza, konfiantza eta komunitate-sen baten truke ordaintzen dute. Gure zerbitzua osoa da: materiala, gidaritza, kultura transmisioa, hizkuntza eta laguntza emozionala uztartzen ditugu.



Erreferentzia Bibliografikoak

Albistea:

Alberdi, K. (2020) *Azkoitikok haurrek kalean jolasten zutenekoan*. Azkoitiako Guka
https://azkoitiaguka.eus/komunitatea/kepaalberdi/1605867735410-azkoitiko-haurrek-kalean-jolasten-zutenekoa?utm_source=

Irudiak:

Gure irudi guztiak, google-tik atera ditugu.

Lehena, gure logoa izan da, lauburua eta web gune honetatik atera dugu:

- <https://stock.adobe.com/es/search?k=lauburu>.

Bigarrena, google-n familia bilatu genuen eta bertan agertu zitzaigun:

- <https://eeecologiafamiliares.blogspot.com/2014/11/extracto-n-1-la-historia-del-sistema.html?m=1>

Besteak, herri kirolak google-n jarri genituen eta bertatik aterak dira:

- <https://www.camping-biper-gorri.com/es/blog/tradiciones-vascas-todo-lo-que-necesitas-saber-para-tocar-bailar-y-cantar-como-un-autentico-vasco/>
- <https://kotarro.eus/event/udan-blai-ur-jolasak/zaku-lasterketa-haurrak-biribil/>
- <https://herrikirolaknafarroa.org/fotografias/lokotx-biltzea-recogida-de-mazorcas/>